

Pasaporte lisergikoak

Ezaguna eta komentatua da zine zaleen artean *Casablanca* filmeko Ugarte pertsonaia, euskaldun deiturako gizajo integrala (marokoarra dirudiena itxuraz; erran nahi baita, euskaldun mestizoa *avant la lettre*). Filmeko hasierako minutuetan akabatzen duten lehene-tarikoa da Ugarte –lehena ez bada–, zineman “esaldidun figurante” izendatu ohi diren horietakoa, hau da, betelana egiten duten atrezzo-gizonen hurrengoa; hutsa ez, baizik eta hutsaren hurrengoa, glamour eta esaldi zirtolaririk batere gabeko pertsonaia funtzional kamutsa. Bere eskasean, ordu txikitako elkarrizketetan joko asko ematen du Ugartek: zini-koenak esan lezake euskaldun bat nekez helduko dela urrunago Hollywoodeko film mitiko baten barruan, eta baikor xaloenak esan lezake, bigarren mailako pertsonaia onik gabe ez dagoela markatik fuerako pelikularik egiterik. Kontuak kontu, funtzio dramatiko garrantzitsua betetzen du Ugartek *Casablanca* filmeko tramaren garapenean: bera da Ingrid Bergman eta Laszlo pertsonaia Parisera eramango dituen *salbokondukto* ospetsuen jabe, harekin egin beharra dago iheserako tratua. Apur bat bederen justizia poetikoan sinesten dudanez, beti iruditu izan zait ederra Ugarte (*irla*, alegia) deitura duen norbait, estaturik ez duen nazio koskorrean izan lezakeena jatorria, berau izatea aduanak arazorik gabe zeharkatzeko pasaporteen jabea, faltsifikatzailea, mugalaria. Esaldi ezagunaren arabera hondarrean beti geratuko omen zaigun Paris hori ezinezkoa litzateke Ugarterik gabe (esan zuen baikor xaloenak).

Jolas zinematografiko-genealogiko inozo samar honi jarraituz, abizen euskalduneko beste pertsonaia bat (hau ere erabat bigarren mailakoa) topatu nuen berriki *Viaje alucinante al fondo de la mente* filmean, bestelako pasaporteak ematen zituen hau. *Viaje alucinante*... subkontzientean barrena eta kontzientzia



DANI BLANCO

egoera paraleloen bila ertz-ertzean dabilen ikerlari bati buruzko istorioa da. Bere buruak egoera mental berri hori lor dezan, era guztietako substantziak hartzen ditu ikerlariak, eta Mexikoko indigenek erabiltzen duten edabe haluzinogenoa da, itxuraz, falta zaion osagaia. Nork errazten dio ikerlariari edabe haluzinogeno horretarantz doan bidea? Asmatu duzue: hementxe da Ugarte berria, Eduardo Eccheberria (sic) izenekoa. Berau izango da indigenekin

egin beharreko akelarrean bide erakusle eta itzultzaile lanak egingo dituen. Honenbestez, Ugarteren pasaporteak ahalmentzen duen bidaia fisikoaren oso ezberdina da Eccheberriak posible egiten duen hau, muturrerainoko bidaia lisergikoa. Hemen ez dago ez Paris ez Paris ondorik, bai ordea, muga fisikoez gaindiko bidaia berri baterako gonbite xamanikoa.

Ugarte eta Eccheberria, kontrajarririk biak, bi bidaia eredu legearen ertzean. Lehena gerraren eta politikaren bidez lor daitekeen herrialde *liberatu* bateranzkoa, beti balizkoa den lurralde eta askapen bateranzkoa, herrialde fisiko bateranzko ihesa irrika arazten digu Ugartek. Oso bestelakoa da Eccheberriaren bidaia, fikziozko errealitate baterakoa, indibidualista eta berekoa: buru barruan gertatzen den bidaia eta liberazioa. Ugarteren jarraitzaileak begitantzen zaizkit zementuzko herri fisiko eta ukigarria aldarrikatzen dutenak: gerra galduak borrokatzen jarraitzen duen herri nekoso, apika anakroniko, goberna ezina, frustrazio eragilea. Eccheberriak berriz, Lisergiako Erreinua eskaintzen digu, herrialde cyber-komantxe, isilpeko sortzaileen sabotajez bete, haluzinatua. Antzerkia eta ez antzokia.

Fikzio batean bizitzea leporatzen digutenean setati saiatzen gara datuen eta diskurtsoaren bidez hori gezurtatzen. Ez ote da fikzio hori besarkatu eta haren baitan harro bizi garela aldarrikatzeko garaia heldu? ■

Beti iruditu zait ederra Ugarte deitura duen norbait, estaturik ez duen nazio koskorrean izan lezakeena jatorria, berau izatea aduanak arazorik gabe zeharkatzeko pasaporteen jabea, faltsifikatzailea, mugalaria



irudia:

Antton Olariaga